

## BEZEROEKIKO-HARREMANAK

Gure zerbitzua bezeroarengana heltzea, helburu nagusienetakoa da. Horretarako, hainbat eskaintzaz eta publizitateaz baliatuko gara, telebista, sare-sozialak, egunkariak, etab. erabiliz.

Alde batetik, telebistaz baliatuko gara. Izan ere, hori da produktua jendearengana iristeko ikusi dugu metodorik egokiena, hoberena eta errentagarriena. Gaienera, grafikoak aztertu ditugu eta datuez baliatuz ikusi dugu, Espainian ia 32 milioi pertsonak egunero ikusten dute telebista eta mundu osoan askoz gehiagok. Informazio horretaz baliatuz aurreikusten dugu publizitatea egiteko metodo egokia izango dela.

Bestetik, sare sozialez ere baliatuko gara (Instagram, Facebook, Twitter...) iragarkiak ipintzen edo gure enpresaren kontuak sortzen. Modu horretan, bereziki gazteen edo adin ez oso handiko jendearen arreta erakarriko dugu; izan ere, sare sozialen erabiltzaile gehienak 16 eta 35 urte bitartekoak dira.

Bukatzeko, adin handiagoko jendea erakartzeko egunkarietan iragarkiak ipiniko ditugu, kalean publizitate liburuxkak banatuko ditugu, eta kaleko zenbait hormetan posterrak ipiniko ditugu.

Ondorioz, publizitatea hiru metodo hauetan egingo dugu. Telebistan biztanleri osoari erakarriko, sare-sozialetan gazteei zuzenki eraginez (16-35) eta azkenik egunkariak edota kaleetako posterren bitartez adin handiagokoei zuzenean eraginez (36-80).

Honetaz aparte, gure harremana bezeroekin ez da zuzena izango ez da aurrez aurrekoa izango web-aplikazio eta erantzungailu automatiko baten bitartekoa izango da. Bi bide hauen bitartez laguntza pertsonala eskainiko dugu gure produktuarekiko arazorik izanez gero.